



JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2024ko irailaren 2an honako Dekretu hau eman duela:

Bergarako Udalak LANBIDE bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 programaren esparruan Toki-erakundeek gazteak kontratatzeko 2024ko ekitaldiko dirulaguntzen bidez kiroletako atezain-laguntzaile bat kontratatzeko egindako deialdiaren oinarriak onartu zituen alkatearen dekretu bidez.

2024ko ekainaren 26an emandako alkate dekretu bidez egindako deialdia hutsik aitortzen da eta deialdi berri bat egiteko baimena eskatzea erabakitzen da.

Deialdi berria eginda (Esp.zk.a.: 2024LAAU0012) eta eskabideak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutako dokumentazioa azterturik, **ERABAKI DUT:**

**LEHENENGOA:** Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda hau onartzea:

Onartuak:

C.V	Izena eta abizenak
162024008949	A.S.E.

Ohartarazten da titulazioa edota gainontzeko dokumentazioa egiaztatzea eskatu ahal izango zaiela prozesuko edozein momentutan (eta betiere indarrean egon behar direla eskaerak aurkezteko epearekiko), eta aurkeztuko ez balute prozesutik baztertuak izango dira.

Baztertuak: Bat ere ez

Hala ere, parte-hartzeko eskaera bakarra izanda eta erreklamaziorako arrazoirik ez egonda, behin-behineko zerrenda honi behin-betiko izaera ematea.

**BIGARRENA:** Lehenengo proba lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasuna neurtzeko proba izatea eta hau, oinarrietan jasotzen den bezala, 2024ko irailaren 3an egitea, goizeko 08:00etan, Bergarako Udal Liburutegian.

**HIRUGARRENA:** Honako epaimahai kalifikatzailea izendatzea:

- Mahaiburua: Iñaki Ugarteburu, Bergarako kirol zerbitzuburua.
- Mahaikideak:
  - o Amaia Zabaleta, Bergarako udaleko kirol koordinatzailea.
  - o Iker Iburguren, Agorrosineko mantenu arduraduna.
  - o Nagore Narbaiza Zarandona, Komiteak izendatutako kidea.
  - o Estepan Plazaola, Euskara Zerbitzuko burua, euskarako probarako.
- Idazkaria: María Concepción Ugalde Izeta, Bergarako udaleko Idazkaria.



Premia balego izendatuko dira ordezkorik ez duten epaimahaikide titularren ordezkoak.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraituz, epaimahaikideen errekusazioa aurkeztu ahal izango da, zein arrazoitan oinarritzen den adierazita.

LAUGARRENA: Erabakia udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea.”

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan  
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA



EKS | CSV: **SINA0d3927ce-fd08-405f-b651-ad55114065a5**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>